

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresaren barruan funtsezko hainbat jarduera gauzatuko dira. Jarduera horien guztien artean nagusia da gure bezeroei eskolaz kanpoko klase inklusiboak ematea haur eta nerabeentzat.

Hori guztia aurrera eramateko, gure langileei prestakuntza-ikastaroak eman behar dizkiegu, hurrekin nola tratatu ikasteko, eta kirolak, musika eta pintura, mundu guztiarentzat eskuragarri egiteko moduz ere bai.

Eskaintzen ditugun jardueren artean honako hauek daude:

- Atletismoa
- Boccia
- Futbola
- Musika klaseak
- Yoga eta erlaxazio jarduerak.



Jarduera hauek aurrera eramateko profesional prestatuez gain, behar diren materialen mantentze eta biltegitate egokia behar dugu. Horregatik, enpresaren inbentarioaren, mantentze- eta garbiketa-lanen antolaketaren kontrol egokia izan behar dugu. Gure enpresako marketing eta publizitate arloa oso garrantzitsua da ere, gure proposamenean interesa izan dezaketen familiak guri ezagutarazteko.

Publizitate-estrategia horien barruan egon daitezke sare sozialen bidezko publizitate-kanpainak, ikastetxeei eta institutuei eskaintzen dizkiegun hitzaldiak eta ikastaroak eta Erandion egiten ditugun ekitaldi bereziak.

Kultur eta kirol ekitaldiak antolatuko ditugu, adibidez, arte-erakusketak antolatuko ditugu gure ikasleek margotutakoarekin, kirol-txapelketak eta kontzertuak egingo ditugu udalerrian. Hau guztia, gure negozioaren berri emateko eta inguruan zabaltzeko. Horretarako, publizitate-kanpaina on bat behar izateaz gain, ekitaldien antolaketaren kontrolatzea behar-beharrezkoa da .